



## 2020ko ikasturteko MUGIMENDUEN ESLEIPEN PROZESUA

Kaixo, lankide.

Haurreskolak Partzuergoak, **2020ko ikasturte-hasierako desplazamendu** prozesuari buruzko egutegia luzatu digu. Aurten **ez da plaza berririk eskainiko** printzipioz, soilik kontratua duten langileak mugitzeko izango da esleipen prozesua. Bizi izan dugun salbuespen egoeraren ondorioz, haurren behin betiko matrikulazio datuak abuztuan argitaratuko dira, horregatik prozesua **abuztuan izango** da. Eskainiko diren mugimendu hauetara deituak izango diren hautagaien zerrenda jasotzen duen deialdia, Partzuergoak haurreskoletara emailez eta Haurreskolak Partzuergoko weborrian argiratuko du.

Uztailean hurrengo ikasturterako behin behineko baja egoeran egoteko eskaera edo hurrengo ikasturterako lanerako prest jartzeko eskaera aurkezteko epea eta indarrean dagoen kontratuari Uko egiteko aukera zabalduko da.

Esleipen **egutegia** honako hau izango da printziaz:

NOIZ	ZER
<b>Abuztuak 25</b> <i>Asteartea</i>	Deialdiaren argitalpena: Eskainiko diren mugimenduen eta deituak izango diren hautagaien <b>behin-behineko</b> zerrenda
<b>Abuztuak 26</b> <i>Asteazkena</i>	<b>Kontratuen Ukoak eta desplazamenduetarako borondatezko eskaerak</b> aurkezteko eguna, faxez edo <b>emailez 14:00ak arte</b>
<b>Abuztuak 27</b> <i>Osteguna</i>	Hautagaien <b>2. behin-behineko</b> zerrendaren argitalpena
<b>Abuztuak 28,</b> <i>Ostirala</i>	Hautagaien zerrendari <b>erreklamazioak</b> aurkezteko eguna. Faxez edo <b>emailez</b> bidali 14:00ak arte
<b>Abuztuak 31</b> <i>Astelehena</i>	Lanpostuen eta hautagaien <b>behin-betiko</b> zerrendaren argitalpena
<b>IRAILAK 1</b>	<b>Esleipen PRESENTZIALA</b> <b>Eibarren</b>

[www.steilas.eus](http://www.steilas.eus)

Araba ☎ 945 14 11 04  
araba@steilas.eus

Bizkaia ☎ 944 10 02 98  
bizkaia@steilas.eus

Gipuzkoa ☎ 943 46 60 00  
gipuzkoa@steilas.eus

Nafarroa ☎ 948 21 23 55  
nafarroa@steilas.eus

Ordezkapen edo LEP arteko kontratuari **uko eginez gero**, kontuan izan behar duzu ordezkoen zerrendan **postua mantentzea ziurtatzen duzula soilik**.

Gogoratu, borondatezko ukoa egiten badiozu lan kontratu bati, **ez duzula langabezia eskatzeko eskubiderik**.

Datorren ikasturterako lanaldi murrizketak, eszedentziak, lizentzia eta baimenak Haurreskolak Partzuergoari jakinarazte garrantzitsua da ahal den heinean.

Prozesuaren inguruko edozein zalantza izan ezkerro, jarri gurekin kontaktuan.

Euskal Herrian, 2020ko uztailaren 7an.



[www.steilas.eus](http://www.steilas.eus)

Araba ☎ 945 14 11 04  
araba@steilas.eus

Bizkaia ☎ 944 10 02 98  
bizkaia@steilas.eus

Gipuzkoa ☎ 943 46 60 00  
gipuzkoa@steilas.eus

Nafarroa ☎ 948 21 23 55  
nafarroa@steilas.eus